

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

12/2025 Foru Araua, urriaren 22koa, kuadrillen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua aldatzeko

Jakinarazten dut Arabako Batzar Nagusiek 2025eko urriaren 22ko osoko bilkuran onetsi dutela, eta nik aldarrikatzen eta agintzen dut argitara dadila "12/2025 Foru Araua, urriaren 22koa, Kuadrillen azaroaren 20ko 63/1989 foru araua aldatzeko"; aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek eta agintariek bete eta betearaz dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 22a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

12/2025 FORU ARAUA, URRIAREN 22KOA, KUADRILLEN AZAROAREN 20KO 63/1989 FORU ARAUA ALDATZEKO

ZIOEN AZALPENA

Arabako kuadrillak udalerriz osatutako lurraldeko foru erakunde gisa eratuta daude, eta, funtsean, kuadrillen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauak arautzen ditu. Arau horrek, funtzionatzeko oinarriko arauak ezartzeaz gain, haien kopurua eta izen ofiziala zehaztu zituen.

Foru arau proiektu honen xedea da, lehenengo eta behin, aipatutako kuadrillen foru arauaren 4, 6, eta 8. artikulua aldatzea, Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrillak eta Aiarako Kuadrillak izen ofiziala aldatzeko hasitako prozeduraren ondorioz, zeina jasota baitago Arabako Lurralde Historikoko toki erakunde mugak, izena, hiriburua eta ezaugarriak arautzen dituen otsailaren 21eko 4/2011 Foru Arauaren 62. artikuluan (67. artikuluar lotuta).

Ilido horretan, kuadrilla horiek izen ofiziala aldatu nahi dutela adierazi dute. Zehazki, Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrillak proposatu du izen ofizial berria "Arabako Errioxako Kuadrilla/Cuadrilla de Rioja Alavesa" izatea, eta Aiarako Kuadrillak "Aiaraldeko Kuadrilla/Cuadrilla de Aiaraldea" izatea.

Era berean, kuadrillen eta udalerrien izena egokitu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dauden elebitasun irizpideetara.

Aldaketa horrek berekin dakar kuadrillen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren artikulua hauek aldatzea: 5, 7, 9, 10 eta 11. artikulua.

Azkenik, 18.5 artikulua aldatzen da, ezartzeko, indarrean dagoen legeriaren arabera, kuadrillako batzarreko lehendakari eta lehendakariorde hautaketan berdinketaren gaineko ebazpena.

Lehenengo artikulua: Hona hemen nola idatzita geratuko den kuadrillen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 4. artikulua:

"4. artikulua

Kuadrilla hauek osatzen dute Arabako lurraldea:

1. Cuadrilla de Vitoria-Gasteiz / Vitoria-Gasteizko Kuadrilla.
2. Aiaraldeko Kuadrilla / Cuadrilla de Aiaraldea.
3. Arabako Lautadako Kuadrilla / Cuadrilla de la Llanada Alavesa.

4. Arabako Errioxako Kuadrilla / Cuadrilla de Rioja Alavesa.
5. Gorbeialdeko Kuadrilla / Cuadrilla de Gorbeialdea.
6. Cuadrilla de Añana / Añanako Kuadrilla.
7. Cuadrilla de Montaña Alavesa / Arabako Mendialdeko Kuadrilla.”

Bigarren artikulua: Hona hemen nola idatzita geratuko den kuadrillen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 5. artikulua:

“5. artikulua

Vitoria-Gasteizko Kuadrilla izen bereko udalerriak osatzen du, eta haren egoitza Vitoria-Gasteiz da.”

Hirugarren artikulua: Hona hemen nola idatzita geratuko den kuadrillen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 6. artikulua:

“6. artikulua

Udalerrri hauek osatzen dute Aiaraldeko Kuadrilla: Aiara, Amurrio, Artziniega, Laudio eta Okondo.

Kuadrillaren egoitza Arespalditzan egongo da.”

Laugarren artikulua: Hona hemen nola idatzita geratuko den kuadrillen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 7. artikulua:

“7. artikulua

Udalerrri hauek osatzen dute Arabako Lautadako Kuadrilla: Alegría-Dulantzi, Agurain, Asparrena, Barrundia, Burgelu, Donemiliaga, Iruraiz-Gauna eta Zalduondo.

Kuadrillaren egoitza Agurainen egongo da.”

Bosgarren artikulua: Hona hemen nola idatzita geratuko den kuadrillen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 8. artikulua:

“8. artikulua

Udalerrri hauek osatzen dute Arabako Errioxako Kuadrilla: Bastida, Bilar, Elciego, Eskuernaga, lekora, Kripan, Guardia, Lantziego, Lapuebla de Labarca, Leza, Mañueta, Moreda Araba, Navaridas, Oyón-Oion eta Samaniego.

Kuadrillaren egoitza Guardian egongo da.”

Seigarren artikulua: Hona hemen nola idatzita geratuko den kuadrillen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 9. artikulua:

“9. artikulua

Udalerrri hauek osatzen dute Gorbeialdeko Kuadrilla: Aramaio, Arratzua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia.

Kuadrillaren egoitza Murgian egongo da.”

Zazpigarren artikulua: Hona hemen nola idatzita geratuko den kuadrillen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 10. artikulua:

“10. artikulua

Udalerrri hauek osatzen dute Añanako Kuadrilla: Añana, Armiñón, Berantevilla, Erriberabeitia, Erriberagoitia, Gaubea, Iruña Oka, Kuartango, Lantarón eta Zambrana.

Kuadrillaren egoitza Ribabellosan egongo da.”

Zortzigarren artikulua: Hona hemen nola idatzita geratuko den Kuadrillen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 11. artikulua:

“11. artikulua

Udalerrri hauek osatzen dute Arabako Mendialdeko Kuadrilla: Arraia-Maeztu, Bernedo, Harana, Kanpezu, Lagrán eta Peñacerrada-Urizaharra.

Kuadrillaren egoitza Santikurutze Kanpezun egongo da.”

Bederatzigarren artikulua: Kuadrillen 63/1989 Foru Arauaren 18.5. artikulua honela geratzen da idatzita:

5. Hainbat hautagairen artean berdinketa gertatuz gero, azken udal-hauteskundeetan kuadrillako udalerrietan boto gehien lortu dituen erakunde politikoko batzarkidea izendatuko da. Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, zozketa bidez ebatziko da.”

Azken xedapena

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 22a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA